



ITZULGAIA

ENPLEGUKO ETA GIZARTE SEGURANTZAKO ESKALAKO LAN IKUSKATZAILEORDEEN EGINKIZUNAK

Enplegua: Kontratazioan enpleguari, enplegua lortzeari, hobariei, dirulaguntzei, laguntzei eta enplegua edo enplegurako lanbide-heziketa sustatzeko gainerako pizgarri edo neurriei buruzko arauak betetzen direla egiaztatzea.

Lana: Hamasei urtetik beherakoak lanean sartzea debekatzen duten arauak betetzen direla egiaztatzea, eta kontratu modalitateei, iraupen mugatuko kontratuei eta aldi baterakoei buruzko araudia betetzen dela egiaztatzea, kontratu-modalitate horiek lege-iruzurrez edo legez edo erregelamenduz aurreikusitakoak ez diren pertsonei, helburuei, kasuei eta denbora-mugei dagokienez zein kasutan erabiliko diren zehazteko, edo hitzarmen kolektibo bidez, alderdi horiek negoziazio kolektiboak zehaztu baditza.

Gizarte Segurantza: Gizarte Segurantzaren sistemako aplikazio-eremuari, enpresen inskripzioari, afiliazioari, langileen altei eta bajei, kotizazioari eta diru-bilketari buruzko arauak betetzen direla egiaztatzea, baita enpresek Gizarte Segurantzaren kudeaketan nahitaez lagundu beharreko arauak eta Gizarte Segurantzaren prestazioak lortu, jaso eta baliatzeko arauak ere, langabezia-prestazioak eta jarduera uztekoak barne.

Migrazioak: atzerritarrek Espainian egiten duten lanari buruzko araudiak eskatzen dituen baldintzak betetzen direla egiaztatzea.

Laguntza teknikoa: enpresaburuei eta langileei aholkularitza ematea beren betebeharrak betetzeari dagokionez, lan-arloko xedapenak hobeto betetzen laguntzeko; eta aholkularitza hori batez ere enpresa txiki eta ertainei ematea, beren eskumen-eremuari dagozkion gaitan, ikuskaritza funtzioa betez.

Beste batzuk: arduradunek beren eskumenen esparruan esleitzen dizkieten antzeko beste eginkizun guztiak.

Lankidetzak: betearazpen-bidea eraginkorra izan dadin enbargatu daitezkeen ondasunak ikertzen eta seinalatzen laguntzea, eta subjektu zorduna edo, hala dagokionean, erantzule solidarioak edo subsidarioak identifikatzea, lan-arloko arauak betetzeari erreferentzia egiten dioten edo eragiten dioten kasu guztietan; eta barne-komunikazioa betetzea, zer egitate eta inguruabar gertatzen diren adierazita, ikuskaritza funtzioa betetzean antzeman dituzten beren eskumeneko gaiekin lotutako arauen ez-betetzei buruz.